El programa “Acceder” es el eje vertebrador de la actividad de la FSG. y ha permitido desarrollar el modelo de intervención personalizada, promocional e integral, que promueve la incorporación de la población gitana al mercado laboral como una puerta de acceso a la inclusión social, favoreciendo de esa manera la igualdad de oportunidades. Con esta finalidad, se ha desarrollado una respuesta integral que favorezca las oportunidades de la población gitana en el mercado laboral, especialmente mediante la fórmula del trabajo por cuenta ajena, sin descartar fórmulas como la del trabajo por cuenta propia.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

---

“Acceder” programaren oinarria pertsona bakoitzaren profilari eta lan merkatuaren beharrei oso egokituta dauden erantzunak dira, eta enpresekin lankidetzan estuan jarduten da.

Proiektuak aurreikusita du ijitoei laguntzea esku-hartze pertsonalizatuko eredu baten bidez eta Bizkaiko ijitoen komunitatearen beharrei erantzuteko jarduketekin.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak beharrezkotzat jotzen du interes publiko eta sozial handia duen proiektu bati laguntzea, eta horrek argi uzten du erakundeak duen konpromisoa gizarte zaugarritasun egoeran daudenei pertsona hizpide duten zerbitzuak eskaintzeko, zenbait oinarrizko eskubide bermatuz gizarteratze eta laneratzeko ibilbide indibidualizatuen bitartez.

Azaldutako guztiak agerian uzten du laguntzaren interes publiko, sozial eta ekonomikoa. Halaber, azaldutako helburuak lortzeko deialdi publiko bat ez erabiltzea justifikatzen du.

El programa “Acceder” está basado en respuestas muy adaptadas al perfil de cada persona, y a las necesidades del mercado laboral, en estrecha alianza con las empresas.

El proyecto tiene previsto atender a la población gitana con un modelo de intervención personalizada, y con actuaciones que pretenden dar respuesta a las necesidades de la comunidad gitana en Bizkaia.

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad considera necesario apoyar un proyecto de marcado interés público y social, que pone de manifiesto el compromiso de la institución por ofrecer a personas en situación de vulnerabilidad social, un conjunto de servicios, centrados en la persona, garantizando el acceso a determinados derechos básicos, mediante itinerarios individualizados de inserción sociolaboral..

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de la ayuda y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                                                                                                                                                                   | EGITARAUA / PROGRAMA                                                       | AZPIKON. SUBCONCEP.                             |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>04 Enplegua</b><br><i>Empleo</i>                                                                                                                                               | <b>241.116 Enplegua eta ekintzailtza</b><br><i>Empleo y emprendimiento</i> | <b>451.00</b>                                   |
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b>                                                                           | <b>2024/0054: Ukraina , laneratzeari laguntzearekin lotutako jarduerak egitea.</b><br><i>Ukrania, Realización de Actuaciones relacionadas con el Apoyo a la Inserción Laboral</i> |                                                                            | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b><br><br><b>120.000</b> |

**TXOSTENA:**

Ukrainako gerraren ondorioz, errefuxiatu ugari iritsi dira Bizkaira, pixkaka iritsi ere, eta horixe da, hain zuzen ere, Ukraina egitasmoaren muina. Hala, Ukraina egitasmoak bi ildotan egiten du lan, biak ala biak premiazko zat jotzen baititu, iristen diren pertsonen eta herrialdea utzi behar dutela esaten dutenen egoerei erantzuteko.

Gerraren ondoriozko errefuxiatuen, lekualdatuen eta migratzaileen kolektiboak parez pare aurkitzen dituen arazo nagusiak hizkuntza, lege-egoera, maila akademikoaren homologazioa eta abar dira, eta horrek guzti horrek izugarri zailtzen die enplegua aurkitzea edo ekitea.

Errefuxiatuei harrera-gizartean ahalik eta erantzunik onena emateko, planteatutako arazoei erantzungo dien plan bat zehaztu da, modua emango duena pertsona horiei laneratzeko eta gizarteratzeko laguntzeko eta ekintzailtza nahiz negozio txikien baterako sorkuntza sustatzeko.

Azaldutako guztiak agerian uzten du laguntzaren interes publiko, sozial eta ekonomikoa. Halaber, azaldutako helburuak lortzeko deialdi publiko bat ez erabiltzea justifikatzen du.

**INFORME:**

La iniciativa Ucrania ha nacido como consecuencia de la guerra en Ucrania y la consiguiente llegada escalonada y masiva de personas refugiadas a Bizkaia, Ucrania trabaja en dos líneas que considera de urgencia para dar respuesta a la situación de las personas que van llegando y a la de aquellas que manifiestan su necesidad de abandonar el país.

Los principales problemas encontrados en el colectivo de personas refugiadas por la guerra, desplazadas y migrantes son el idioma, la situación legal, la homologación de los niveles académicos, etc conllevando todo ello una enorme dificultad para encontrar empleo o para poder emprender.

Para dar la mejor respuesta posible al colectivo de personas refugiadas en la sociedad de acogida, se ha definido un plan de trabajo que responda a los problemas planteados, posibilitando la promoción de su Inserción sociolaboral y el impulso al emprendimiento y la co-creación de pequeños negocios.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de la ayuda y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                         | ATALA / SECCION              | EGITARAUA / PROGRAMA                                                | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|---------------------------------------------------------------------|---------------------|
| 09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna<br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | 04 Enplegua<br><i>Empleo</i> | 241.116 Enplegua eta ekintzailtza<br><i>Empleo y emprendimiento</i> | 451.00              |

|                       |                                                  |                       |        |
|-----------------------|--------------------------------------------------|-----------------------|--------|
| PROIEKTUA<br>PROYECTO | 2024/0077: People Museum<br><i>People Museum</i> | ZENBATEKOA<br>IMPORTE | 30.000 |
|-----------------------|--------------------------------------------------|-----------------------|--------|

**TXOSTENA:**

Cultura Abierta/Kultura Irekia elkarteak sustatzen duen BBPM (BILBAOBIZKAIA PEOPLE'S MUSEUM) museo birtualak aitortza egiten dio industriako enpleguari, Bizkaiaren garapenerako ezinbestekoa izan baitzen, eta garrantzi horren berri ematen laguntzen du. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak "Trabajadoras" eta "La fábrica de mi padre" dokumentalak sustatu ditu, aurretiko lan baten emaitza gisara, industriako enpleguak iraganean, orainean eta etorkizunean izan eta izango dituen garrantziaren eta indarraren inguruan kontzientziaztea helburu, enplegu mota horrek finkatu dituelako gaur ezagutzen dugun egitura sozial eta ekonomiko honen oinarriak.

BBPM museoak, liburutegiaren, filmotekaren, irratia eta erakusketa-aretoaren bidez, lan-ildo horri heldu dio, eta industriako enpleguaren garrantzia herritarren artean oro har baina, batez ere, belaunaldi gazteen artean hedatzeko baliabide berriak txertatu ditu, bai gaiaren inguruko ezagutzan sakontzeko, bai gaurko eta atzoko langileen edota bizimodu hobe baten bila etorritakoen aitortzan aurrera egiten jarraitzeko.

Izan ere, iraganak irakatsi digunez, migrazioek eta lanak, aberastasun materiala sortzeaz gainera, komunitatea eraikitzen dute, eta langile-auzoak ditugu horren adibide.

**INFORME:**

El museo virtual BBPM (BILBAOBIZKAIA PEOPLE'S MUSEUM) promovido por la asociación Cultura Abierta/Kultura Irekia viene impulsando una plataforma de reconocimiento y difusión de la importancia del empleo industrial para el desarrollo de Bizkaia. Los documentales: "Trabajadoras" y "La fábrica de mi padre" impulsados por el departamento foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, son parte de un trabajo previo que va creando conciencia social de la importancia y la fortaleza del pasado, presente y futuro del empleo industrial, que ha sentado las bases de la estructura social y económica que conocemos hoy

El BBPM mediante su Biblioteca, Filmoteca, Radio, Sala de exposiciones. desarrolla esta línea de trabajo incorporando nuevos recursos para la difusión entre la población en general, y sobre todo entre las jóvenes generaciones, de la importancia del empleo industrial para seguir avanzando en el conocimiento, y el reconocimiento que han tenido y tienen las personas trabajadoras, y como antaño, los que están y los que vienen a buscar una vida mejor.

Porque el pasado nos enseña que las migraciones y el trabajo no solo generan riqueza material, sino que también construyen comunidad, siendo los barrios obreros un ejemplo de ello.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

---

Hala, BBPM da jarduketok garatzeko plataforma; hedapen birtualean ez ezik, bertatik bertarako sustapenean ere aritzen da, Bizkaiko herri eta eskualdeetan erakusketak, topaketak eta proiektzioak eginez.

Sorrarazten duen ezagutzak, bada, oinarriak finkatzen ditu Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak bultzatzen dituen enplegu-politikak hobeto uler daitezen.

Azaldutako guztiak agerian uzten du laguntzaren interes publiko, sozial eta ekonomikoa. Halaber, azaldutako helburuak lortzeko deialdi publiko bat ez erabiltzea justifikatzen du.

El BBPM es la plataforma para desarrollar estas actuaciones, que además de la difusión virtual, complementan sus trabajos con lo presencial en los pueblos y comarcas de Bizkaia, con exposiciones, encuentros y proyecciones.

El conocimiento que generan sienta las bases para la mejor comprensión de las políticas de empleo que impulsa el departamento foral de Empleo, Cohesión Social e Igualdad.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de la ayuda y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                     | EGITARAUA / PROGRAMA                                                       | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|---------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>04 Enplegua</b><br><i>Empleo</i> | <b>241.116 Enplegua eta ekintzailtza</b><br><i>Empleo y emprendimiento</i> | <b>451.00</b>       |

|                           |                                                                                                                                        |                           |               |
|---------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b> | <b>2025/0040:</b> AED, Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartea<br>AED-Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b> | <b>30.000</b> |
|---------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|

**TXOSTENA:**

Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartea 1995ean eratu zen, azpiegiturak sortzea sustatzeko asmoz, emakumeek enpresa-eremuan duten zeregina zabaltzearen eta ekonomia- eta enpresa-sarean erabat integratzea eragotzen dieten oztopoak kentzearen.

Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartek, «IMPULSA, enpresen zuzendaritzan emakume gazteen presentzia sustatzeko transferentzia-prozesua» proiektuaren bidez, jakin nahi du zer oztopo dituzten emakume gazteek ekiteko, enpresen zuzendaritzara iristeko eta, ondorioz, etorkizuneko zuzendaritza-postuak betetzeko.

Azaldutako guztiak agerian uzten du laguntzaren interes publikoa, soziala eta ekonomikoa, eta proposatzen diren helburuak lortzeko deialdi publikorik ez erabiltzea justifikatzen du.

**INFORME:**

La Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia se constituyó en 1995 con el objetivo de estimular la creación de infraestructuras que amplíen el papel de las mujeres en el ámbito empresarial y remueven los obstáculos existentes para su plena integración en el tejido económico y empresarial.

La Asociación de Empresarias y Directivas de Bizkaia a través del proyecto "IMPULSA, proceso de transferencia para impulsar la presencia de las mujeres jóvenes en la dirección de las empresas", busca la detección de las barreras que dificultan a las mujeres jóvenes para llegar a emprender e incorporarse a la dirección de las empresas y, en consecuencia, para ocupar los futuros puestos de dirección.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de la ayuda y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                         | ATALA / SECCION              | EGITARAUA / PROGRAMA                                                 | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|----------------------------------------------------------------------|---------------------|
| 09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna<br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | 04 Enplegua<br><i>Empleo</i> | 241.116 Enplegua eta ekintzailatza<br><i>Empleo y emprendimiento</i> | 451.00              |

|                       |                                                                          |                       |         |
|-----------------------|--------------------------------------------------------------------------|-----------------------|---------|
| PROIEKTUA<br>PROYECTO | 2025/0041: SENDOTU ALDI BEREAN elkarte<br>Asociación SENDOTU ALDI BEREAN | ZENBATEKOA<br>IMPORTE | 150.000 |
|-----------------------|--------------------------------------------------------------------------|-----------------------|---------|

**TXOSTENA:**

SENDOTU ALDI BEREAN proiektuaren helburua gizarteratzea, enplegarritasuna eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea da.

Programaren xedea da lan-merkatutik urrunen dauden pertsonei gizarte-laguntza trinkoen politiketatik enplegua igarotzea eragozten dieten oztopoak kentzea, behar handiko hiri- zein landa-komunitateetan, bereziki printzipio horizontaletatik datozen diskriminazio positiboko irizpideak kontuan hartuta, jatorri etnikoaren, adinaren, erlijio-sinesmenen, desgaitasunaren eta sexu-orientazioaren ziozko diskriminaziorik ezari dagokionez, bai eta emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari dagokionez ere. Hori guztia, garapen jasangarriaren ikuspegitik.

**INFORME:**

SENDOTU ALDI BEREAN es un proyecto que tiene como objetivo el fomentar la inclusión social, la empleabilidad y la igualdad entre hombres y mujeres.

El programa persigue la eliminación de los obstáculos que impiden a las personas más alejadas del mercado de trabajo pasar de las políticas de apoyos sociales intensos al empleo, tanto en comunidades urbanas como rurales desfavorecidas, atendiendo especialmente a los criterios de discriminación positiva que emanan de los principios horizontales en relación con la no discriminación por razón de origen étnico, edad, creencias religiosas, discapacidad y orientación sexual, además de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres. Todo ello, desde una perspectiva de desarrollo sostenible.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                         | ATALA / SECCION              | EGITARAUA / PROGRAMA                                                | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|---------------------------------------------------------------------|---------------------|
| 09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna<br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | 04 Enplegua<br><i>Empleo</i> | 241.116 Enplegua eta ekintzailtza<br><i>Empleo y emprendimiento</i> | 451.00              |

  

|                       |                                                                                     |                       |           |
|-----------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-----------|
| PROIEKTUA<br>PROYECTO | 2025/0065: Peñascal SCoop (Gazte On programa)<br>Peñascal SCoop (Programa Gazte On) | ZENBATEKOA<br>IMPORTE | 1.300.000 |
|-----------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-----------|

**TXOSTENA:**

Peñascal S. Coop. Gizarte-ekimeneko entitate bat da, irabazi-asmorik gabea eta onura publikoko deklaratu; beraren helburu nagusia da askotariko inguruabar pertsonal, akademiko edo sozialengatik gizartean baztertuta daudenei edo egoteko arriskuan daudenei laguntzea, eta, horretarako, euren kualifikazio profesionala sustatzen da, erantzukizun- eta elkartasun-balio eta jarrerak kontuan izanik, halako pertsonak burujabeak eta protagonista aktiboak izan daitezen euren bizitzetan zein gizartean.

Peñascal S. Coop.ek arlo horretan duen esperientzia handia dela eta, gazte migratzaileentzako Gazte On Programa garatzea proposatzen da.

Gazte On programak ibilbide integral eta pertsonalizatuak jarriko ditu abian, laguntza eta orientazio integrala emango duten enplegu- eta prestakuntza-programa pertsonalizatuen bidez, zeinen hartzaileak honako hauek izango baitira: batetik, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren gazteei arreta emateko programako parte-hartzaile diren gazteak; bestetik, umeak eta nerabeak babesteko sisteman parte hartzen duten 16 eta 18 urte bitarteko gazteak, baldin eta hezkuntza arauturik jasotzen ari ez badira, eta, azkenik, Bizkaiko udaletako oinarritzko gizarte-zerbitzuen iritziz gizarte-kalteberatasuneko egoeran dauden gazteak.

**INFORME:**

Peñascal Scoop. es una entidad de iniciativa social, sin ánimo de lucro y declarada de utilidad pública, cuyo propósito se centra en integrar en la sociedad a personas que están en situación o en riesgo de exclusión por diversas circunstancias personales, académicas o sociales, promoviendo una cualificación profesional, con valores y actitudes de responsabilidad y solidaridad, para que las personas sean soberanas y protagonistas activas, en sus propias vidas y en la sociedad.

Debido a la dilatada experiencia en este campo de Peñascal Scoop., se propone el desarrollo del Programa Gazte On dirigida a personas jóvenes migrantes.

El programa Gazte On pondrá en marcha itinerarios integrales y personalizados, a través de programas de empleo y formación personalizados, con acompañamiento y orientación integral, dirigidos a jóvenes integrantes del programa de atención a personas jóvenes de la Dirección General de Inclusión Social, jóvenes de 16 a 18 años que formen parte del sistema de protección de la infancia y la adolescencia y no estén cursando formación reglada, y jóvenes en situación de vulnerabilidad social a juicio de los servicios sociales de base de los ayuntamientos de Bizkaia.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

---

Azaldutako guztiak agerian uzten du laguntzaren interes publiko, sozial eta ekonomikoa. Halaber, azaldutako helburuak lortzeko deialdi publiko bat ez erabiltzea justifikatzen du.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de la ayuda y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                         | ATALA / SECCION              | EGITARAUA / PROGRAMA                                                 | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------|----------------------------------------------------------------------|---------------------|
| 09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna<br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | 04 Enplegua<br><i>Empleo</i> | 241.116 Enplegua eta ekintzailatza<br><i>Empleo y emprendimiento</i> | 732.99              |

|                       |                                                               |                       |         |
|-----------------------|---------------------------------------------------------------|-----------------------|---------|
| PROIEKTUA<br>PROYECTO | 2025/0053: Aprendizzen eskola<br><i>Escuela de Aprendices</i> | ZENBATEKOA<br>IMPORTE | 500.000 |
|-----------------------|---------------------------------------------------------------|-----------------------|---------|

**TXOSTENA:**

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren iritziz, beharrezkoa da interes publiko eta sozial nabarmena duen proiektu bat babestea. Horren bidez, lagundu egingo zaie adinarengatik edo langabezian emandako denborarengatik etengabeko langabezian dauden pertsonen, lan-merkatuan sartzeko lanbide-profil kualifikatuak prestatuz, eta enpresek profil horiek kalitatezko lanpostuetan betetzeko dituzten beharrezko erantzunez. Horrela, Bizkaiko garapen sozioekonomikoan lagunduko da.

Enpleguaren Lurralde Planaren ikuspegi prospektiboaren barruan, ikuspegi bikoitza planteatzen da: enpleguaren bilakaera eta hari aurre egiteko behar diren konpetentziak, eta eragileen arteko lankidetzaren sustatzea politika proaktibo eta jasangarriak harturik, lan-aukerak areagotzeko eta lan-merkatuan desberdinkeria betikitzen dituzten egiturazko oztopoak gainditzeko.

Aprendizzen Eskola Bizkaiko industria-sarearen erronkarik premiazkoenetako bati erantzun integral eta bereizgarria emateko planteatu da: lanpostu jakin batzuetan profesional kualifikatuak falta izatea gaur egun eta etorkizunean. Horrenbestez, beharrezkoa da eskualdeko enpresa-ingurunearen beharrezko erantzutea, eta, horrela, lehiakortasun handiagoa eta hobea bultzatzea. Horretarako,

**INFORME:**

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad considera necesario apoyar un proyecto de marcado interés público y social, que coadyuva, a evitar la cronificación en el desempleo de determinadas personas por motivos de edad o tiempo en el desempleo, a la formación de perfiles profesionales cualificados para su inserción en el mercado laboral, y a las necesidades de las empresas de cubrir dichos perfiles en puestos de trabajo de calidad, contribuyendo con ello al desarrollo socioeconómico de Bizkaia.

Dentro del enfoque prospectivo del Plan Territorial de Empleo, se plantea una doble perspectiva: la evolución del empleo y las competencias requeridas para afrontarla, y fomentar la colaboración entre diferentes agentes adoptando políticas proactivas y sostenibles, con el objetivo de mejorar la ocupabilidad y superar las barreras estructurales que perpetúan las desigualdades en el mercado laboral.

La Escuela de Aprendices se plantea como una respuesta integral y diferencial a uno de los retos más urgentes del tejido industrial de Bizkaia: la escasez actual y futura de profesionales cualificados en determinados puestos de trabajo, siendo necesario dar respuesta a necesidades del entorno comarcal empresarial, favoreciendo de esta manera una mayor y mejor competitividad, a



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

---

prestakuntza aplikatu, malgu eta inklusiboko eskola bat diseinatu eta dimentsionatuko da, industrian aldeztetik esperientziarik ez duten pertsonak denbora laburrean gaitzera bideratua, industria-enpreetan zuzenean laneratu daitezkeen.

Aprendizaren Eskolaren proiektua gauzatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak Sestaoko Udalaren laguntza izango du: udal horrek bere instalazioak lagako dituen aipaturako prestakuntza emango den eskola instalatzeko. Hala, hitza eta estaldura emango zaie industriaren eremuan ekoizpen-prozesuak egiten dituzten Bizkaiko enpreei.

Horretarako, beharrezkoa da Sestaoko Udalaren jabetzako higiezin bateko sei solairuetako bat egokitzea, tailer eta ikaskuntza-gela gisa erabili ahal izateko eta, horrela, industriaren beharrezanean erantzun ahal izateko, erronketan oinarritutako metodologia aktiboa, ingurune simulatuetan eta ingurune errealetan oinarritutako ikaskuntza praktikoa eta prestakuntza-ibilbide labur eta trinkoak erabiliz.

Azaldutako guztiak agerian uzten du laguntzaren interes publiko, sozial eta ekonomikoa. Halaber, azaldutako helburuak lortzeko deialdi publiko bat ez erabiltzea justifikatzen du.

través del diseño y dimensionamiento de una escuela de formación aplicada, flexible e inclusiva, orientada a capacitar en un tiempo ajustado a personas sin experiencia previa en industria, para su inserción laboral directa en empresas industriales.

Para la ejecución del proyecto de Escuela de Aprendices, la Diputación Foral de Bizkaia cuenta con la colaboración del Ayuntamiento de Sestao, quien cederá sus instalaciones para la instalación de la escuela donde se impartirá la citada formación, dando así voz y cobertura a las empresas vizcaínas con procesos productivos en el ámbito de la industria.

Para ello es precisa la adecuación una de las seis plantas de un inmueble de propiedad del Ayuntamiento de Sestao para poder hacerlas operativas como talleres y aulas de aprendizaje y cubrir así las necesidades de la industria utilizando una metodología activa basada en retos, aprendizaje práctico basado en entornos simulados y entornos reales, con itinerarios formativos breves e intensos.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de la ayuda y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                     | EGITARAUA / PROGRAMA                                                       | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|---------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>04 Enplegua</b><br><i>Empleo</i> | <b>241.116 Enplegua eta ekintzailtza</b><br><i>Empleo y emprendimiento</i> | <b>751.00</b>       |

  

|                           |                                                                                                                            |                           |               |
|---------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b> | <b>2007/ 0566: DEMA- Enpresa Garatzen laguntzeko elkarte</b><br><i>DEMA- Asociación de Apoyo al Desarrollo Empresarial</i> | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b> | <b>30.000</b> |
|---------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|

**TXOSTENA:**

DEMA - Enpresa Garatzen Laguntzeko Elkartearen (hemendik aurrera, DEMA) helburu orokorra hau da: enplegua, norbere kontura zein beste batzuen kontura, sortzeko eta gizarteaz baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko eta gizarte zerbitzuak jasotzeko era guztietako programak abian jartzeko eta burutzeko behar diren kudeaketa-jarduerak egitea.

DEMAko bazkideen artean aurkitzen dira Bizkaiko ikastetxeak, enpresa pribatuak eta enpresa elkarteak, bai eta Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila ere. Hala, hain zuzen ere, izaera bereziko elkarte da, gizarteratzea errazten duten eta enpresen beharrezkoak betetzen dituzten programen kudeaketan.

Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako Enpresa Sorkuntza eta Garapenerako Agentzia da DEMA Enpresa Garapena. DEMAren helburua enpleguaren sorrera bultzatzea da, eta, horretarako, Bizkaiko enpresa sarea osatzen duten enpresa txiki eta ertainak sortu eta finkatzen ditu, batez ere pertsona gazteen artean.

**INFORME:**

La Asociación de Apoyo al Desarrollo Empresarial "DEMA-ENPRESA GARAPENA", en adelante DEMA, tiene como objeto general la realización de las actividades necesarias para la gestión de la puesta en marcha y ejecución de todo tipo de programas relacionados con el empleo por cuenta ajena y propia, así como la inserción laboral de colectivos en riesgo de exclusión social y servicios sociales.

DEMA es una entidad que cuenta entre sus socios a centros de enseñanza de Bizkaia, empresas privadas y asociaciones empresariales, así como al Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad, constituyendo una asociación de carácter singular en la gestión de programas que facilitan la inserción laboral y cumplen con las necesidades de las empresas.

DEMA Enpresa Garapena es una Agencia de Creación y Desarrollo Empresarial promovida por la Diputación Foral de Bizkaia. DEMA tiene por objeto promover la generación de empleo, principalmente a través de la creación y la consolidación de las pequeñas y medianas empresas que conforman el tejido empresarial de Bizkaia, especialmente entre las personas jóvenes.



## **Partida izendunak - TXOSTENA**

### **Partidas Nominativas - INFORME**

---

DEMAk enpresa kultura hedatzeko, enpresak sortu eta finkatzeko eta Bizkaiko pertsonen enplegarritasuna hobetzeko jarduerak sustatu, sensibilizatu eta garatzeko ekintzak gauzatzen ditu.

Era berean, enpresa kultura sustatzen du gazteen artean (sormen tailerrak antolatuta, dinamizatuta eta haien tutoretza eginda), sensibilizazio jardunaldiak egiten ditu Lanbide Heziketako Ikastetxeetan (ikasleen ideiak garatzeko eta enpresa proiektuak lantzeko) eta enpresentzako zerbitzu bereziak sustatu, hedatu eta garatzen ditu, beste jarduerak batzuen artean.

Langabeei eta autonomoei kalitatezko zerbitzua emateko, beharrezkoa da DEMAk ekipamendu egokiak izatea zerbitzu horiek egungo eskakizunen arabera emateko.

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak prestakuntza eta enplegua babesteko planak betearazten ditu eta, horretarako, lankidetzan aritzen da langabetuei eta enpresa sustatzaileei zerbitzuak ematen dizkion erakunde batekin. Erakunde hori, hain zuzen ere, bakarra da prestakuntza, enpresa eta udal arloko gizarte agenteen multzoan, eta, elkarlan horren bidez, hain zuzen ere, ekarpen zehatz bat egiten da aurreikusitako jarduerak kudeatzeko orduan, hala balio erantsia sortzen baita Sailaren eskutik estrategiak baloratu, aztertu eta idazteko lanetan. Horrez gain, Bizkaiko pertsonen eta batez ere gazteen enplegarritasuna sustatzen da.

Azaldutako guztiak agerian uzten du laguntzaren interes publiko, sozial eta ekonomikoa. Halaber, azaldutako helburuak lortzeko deialdi publiko bat ez erabiltzea justifikatzen du.

DEMA realiza acciones de promoción, sensibilización y desarrollo de actuaciones para la difusión de la cultura empresarial, para la creación y consolidación de empresas y para la mejora de la empleabilidad de las personas de Bizkaia.

Así mismo promueve la cultura empresarial entre las personas jóvenes (mediante la organización, dinamización y tutorización de talleres de creatividad), realiza jornadas de sensibilización en Centros Educativos de Formación Profesional (para el desarrollo de ideas y la elaboración de proyectos empresariales), e impulsa, difunde y desarrolla servicios especializados a empresas, entre otras actuaciones.

Con el fin de prestar un servicio de calidad a las personas desempleadas y a las personas autónomas es necesario que DEMA disponga de equipamientos adecuados a exigencias actuales de prestación de dichos servicios.

Es de interés del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad la ejecución de planes de apoyo a la formación y al empleo en colaboración con una entidad cuya actividad se desarrolla en la prestación de servicios a personas desempleadas y a promotoras empresariales, y que se considera única en lo que respecta a la conjunción de agentes sociales del ámbito formativo, empresarial y municipal, con objeto de conseguir una aportación específica en la gestión de las actividades previstas, generando con ello, un valor añadido en cuanto a la valoración, análisis y redacción de estrategias que realiza el Departamento, así como para fomentar la empleabilidad de las personas de Bizkaia, especialmente las personas jóvenes.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y económico de la ayuda y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                                                                                             | EGITARAUA / PROGRAMA                                                                             | AZPIKON. SUBCONCEP.                            |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>05 Berdintasuna</b><br><i>Igualdad</i>                                                                   | <b>232.114</b> Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna<br><i>Igualdad de Mujeres y Hombres</i> | <b>423.00</b>                                  |
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b>                                                                           | <b>2019/ 0015:</b> Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea<br><i>Emakunde - Instituto Vasco de la Mujer</i> |                                                                                                  | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b><br><br><b>35.000</b> |

**TXOSTENA:**

«Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea» sorrarazteari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 2. artikularen arabera, Emakunderen funtsezko xedea da Euskal Herriko politika, ekonomia, kultura eta gizarte-bizitzako alor guztietan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko benetako eta egiazko berdintasuna lortzea.

Beste alde batetik, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundearen helburuetako bat hau da: administrazioen esku-sartzea indartu eta areagotzea emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzen, batez ere sexuen arteko desberdintasunaren agerkaririk larrienean: emakumezkoen aurkako indarkerian.

Bat etorrita 4/2005 Legearen testu bateginarekin (4/2005 Legea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzetarako dena, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia; aurrerantzean, Berdintasunerako Legearen testu bategina esango diogu) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauarekin, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, bere lurralde-eremuan, emakumeen eta gizonen desberdinkeriazko egoerari buruzko eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruzko sentsibilizazio-jarduerak burutzea.

**INFORME:**

De acuerdo con el artículo 2 de la Ley 2/1988, de 5 de febrero, sobre creación del «Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea», el fin esencial del Instituto es la consecución de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social del País Vasco.

Por otra parte, uno de los objetivos de EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer es reforzar y potenciar la intervención de las administraciones en la promoción de la igualdad de mujeres y hombres y en la que es la manifestación más grave de la desigualdad de los sexos: la violencia contra las mujeres.

De acuerdo con Texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo (en adelante texto refundido de la Ley para la Igualdad y de acuerdo con la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, de Igualdad para Mujeres y Hombres, corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia realizar, en su ámbito territorial, actividades de sensibilización sobre la situación de desigualdad entre mujeres y hombres y sobre las medidas necesarias para promover la igualdad.



## **Partida izendunak - TXOSTENA**

### **Partidas Nominativas - INFORME**

---

Berdintasunerako Legearen testu bategin berberak, 6-k) artikuluan, eta 4/2018 Foru Arauak, 5-k) artikuluan, haxe ezartzen dute foru-administrazioen eginkizunen artean: "Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek lurralde-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute".

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek eta Eudel-Euskadiko Udalen Elkarrekin dihardute lanean 2009. urteaz geroztik genero indarkeriaren prebentziorako erakundearteko kanpaina bat garatzen "Beldur Barik" izenarekin eta gazteentzat zuzendua; bada, 2014. urteko ediziotik hona, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeak, Eudel eskatuta, erantzukizuna hartu du kanpaina hori kudeatzeko.

Estrategia honen helburua haxe da: administrazio publikoek bultzatzen dituzten berdintasun-programek koherenteak izan behar dute euren estrategia eta helburuetan, eta horrek beharrezko egiten du erakundeen arteko koordinazioa, betiere politika horiek gizarte-eredu berri baten eraikuntza ukitzen duten neurrian eta, beraz, hiritar guztiak ukitzen dituzten neurrian.

Esparru horretan garatuko dira Beldur Barik erakundearteko kanpaina eta erakundearteko sentsibilizazio-jarduera 2025ean..

Aintzat hartuz interes publiko zein sozial nabaria eta erakundearteko programa bat dela, ez da egokitzen jotzen adierazitako helburua lortze aldera deialdi publikoa egitea.

El mismo texto refundido de la Ley para la Igualdad en su artículo 6-k) y la Norma Foral 4/2018 en su artículo 5k) señalan también como una de las funciones de las administraciones forales la del "establecimiento de relaciones y cauces de participación y colaboración con entidades públicas y privadas que en razón de sus fines o funciones contribuyan en su ámbito territorial a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres".

Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y Eudel-Asociación de Municipios Vascos vienen colaborando desde el año 2009 en el desarrollo de una Campaña Interinstitucional de Prevención de la violencia de género dirigida a la juventud, bajo el lema "Beldur Barik" y a partir de la edición correspondiente al año 2014 EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer, a solicitud de Eudel, asume la responsabilidad de gestionar dicha campaña.

Esta estrategia responde a que los programas de igualdad impulsados desde las administraciones públicas deben ser coherentes en sus estrategias y objetivos, lo cual exige una coordinación institucional, en la medida en que son políticas que buscan incidir en la construcción de un nuevo modelo de sociedad y afectan por tanto al conjunto de la ciudadanía.

En este marco se desarrollará la Campaña Interinstitucional Beldur Barik y la actividad interinstitucional de sensibilización durante el año 2025.

Dado su evidente interés público y social y la singularidad de tratarse de un programa interinstitucional, no se estima conveniente acudir a una convocatoria pública para alcanzar la específica finalidad señalada.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                           | EGITARAUA / PROGRAMA                                                                             | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>05 Berdintasuna</b><br><i>Igualdad</i> | <b>232.114</b> Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna<br><i>Igualdad de Mujeres y Hombres</i> | <b>451.00</b>       |

|                           |                                                                                    |                           |               |
|---------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b> | <b>2022/ 0018:</b> Zinemakumeak Gara Elkartea<br><i>Zinemakumeak Gara Elkartea</i> | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b> | <b>25.000</b> |
|---------------------------|------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|

**TXOSTENA:**

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ahalbidetzeko politika publikoak sortzea eta sustatzea da.

Helburu hori, Berdintasunerako Legearen testu bateginean adierazitakoa betez egikaritzeaz gain (4/2005 Legea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako dena, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia), Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren aginduetan egikaritzen da. 3. artikuluan xedatuta daude Bizkaiko Lurralde Historikoko foru sektore publikoaren jarduketa arautu eta gidatu behar dituzten hiru printzipioak, hauek: Tratu berdintasuna; aukera berdintasuna; aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea; genero ikuspegia integratzea; ekintza positiboa; sexuaren arabera rolak eta estereotipoak desagerraraztea; ordezkaritza orekatua eta koordinazioa eta lankidetzak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 51. artikulua honako hau adierazten du:

**INFORME:**

El Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad de mujeres y hombres.

Esta misión, además de en el cumplimiento de lo establecido en el Texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, se materializa en los mandatos de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres que en artículo 3 señala los principios que deben regir y orientar la actuación del Sector Público Foral del Territorio Histórico de Bizkaia: la igualdad de trato; la igualdad de oportunidades; el respeto a la diversidad y a la diferencia; la integración de la perspectiva de género; la acción positiva; la eliminación de roles y estereotipos en función del sexo; la representación equilibrada y la coordinación y colaboración.

El artículo 51 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres señala que:



## **Partida izendunak - TXOSTENA**

### **Partidas Nominativas - INFORME**

---

1. Foru-arau honen helburuak lortzeko, honako neurri hauek hartuko dituzte kultura-jardueraren arloan eskumena duten foru-sektore publikoko sailek eta erakundeek:

- a) Emakume anitzen presentzia ikusaraziko dute arte eta kulturaren adierazpenetan eta sorreran.
- b) Emakume anitzek iraganean eta gaur egun kulturaren arlo guztietan eginiko ekarpena ikusaraziko dute.
- c) Emakume anitzek egindako lan artistikoen eta kulturalen sorrera, ekoizpena eta zabalkundea sustatuko dute.
- d) Espazioak eta tokiak sortu edo erabilgarri jarriko dituzte emakume anitzek eginiko lan artistiko eta intelektualek erakutsi, ezagutarazi eta zabaltzeko.

Berdintasunerako Legearen testu bategin berberak (4/2005 Legea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako dena, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia), 6-k) artikuluan, eta 4/2018 Foru Arauak, 5-k) artikuluan, hauxe ezartzen dute foru-administrazioen eginkizunen artean: "Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek lurralde-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute".

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna nabarmena den ekoizpen artistikoaren guneetako bat da zinemaren esparrua. Gainera, gizartean trakzio-ahalmen handia duen espazioa da, bai erreferenteak sortzeko, bai bizitzaren esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragiteko.

1. Para alcanzar los objetivos de esta norma foral, los departamentos y entidades del Sector Público Foral con competencias en materia de actividad cultural adoptarán las siguientes medidas:

- a) Promocionar la visibilización de la diversidad de las mujeres en la representación y en la producción artística y cultural.
- b) Hacer visible la aportación de la diversidad de las mujeres, tanto histórica como presente, en todos los ámbitos de la cultura.
- c) Impulsar la creación, producción y difusión de los trabajos artísticos y culturales realizados por una diversidad de mujeres.
- d) Crear o disponer de espacios y lugares en los que exhibir, dar a conocer y difundir las producciones artísticas e intelectuales de una diversidad de autoría femenina.

El texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo en su artículo 6-k) y la Norma Foral 4/2018 en su artículo 5k) señalan también como una de las funciones de las administraciones forales la del "establecimiento de relaciones y cauces de participación y colaboración con entidades públicas y privadas que en razón de sus fines o funciones contribuyan en su ámbito territorial a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres".

El ámbito del cine es uno de los espacios de la producción artística en la que la desigualdad de mujeres y hombres es notoria. Se trata además de un espacio con un gran poder tractor en la sociedad, tanto para generar referentes como para incidir en la igualdad de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

---

Bizkaian, Zinemakumeak Gara Elkartek 27 edizio egin ditu emakumeen lan zinematografiko osoa aintzatesten, saritzen, ikusarazten, erreferenteak sortzen eta horri lekua ematen. Horretarako, emakumeek zuzendutako filmak estreinatzen ditu, eta lanbideari lotutako hainbat lanetan nabarmendu diren emakumeak saritzen ditu.

Bizkaian Zinemakumeak Gara Elkartea da horrelako lan bat egiten duen erakunde bakarra, eta Estatu mailan erreferenteetako bat da.

Se ha contactado con instituciones relevantes del mundo del arte, la cultura, la ciencia, el deporte o la gastronomía para comenzar un proyecto común: Bizkaia Koopera. Cada una de estas entidades representa alguna de las capacidades, los recursos y la experiencia existentes en el territorio de Bizkaia y que se pueden poner al servicio de la cooperación al desarrollo.



## **Partida izendunak - TXOSTENA**

### **Partidas Nominativas - INFORME**

---

Bizkaiko gizartean errotuta dauden erakundeak dira, eta beren irudi publikoa eta kudeaketa-espereintzia ere jar ditzakete garapenerako lankidetzari balioa emateko proiektu honen zerbitzura.

Erakunde horietako bat Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa da.

Guggenheim Museoaren proiektua 2020. urtean bere obra Guggenheim Museoan erakutsi zuen Olafur Eliasson artista ospetsuaren eskutik dator. Artista honek "Little Sun" fundazioa jarri zuen abian eta horren bidez kalitate eta diseinu altuko eguzki-lanpara eramangarriak sortzen ditu.

Argi horiek, esaterako, umeei argia emateko balio dute, hain zuzen ere gauez ikasteko edo bidean argia izateko aukera izan dezaten. Egon daude beste mota batzuetako lanparak ere, argi-indarrak ez dagoen ospitaletako tokietan argia emateko edo telefono mugikorrek kargatzeko aukera ematen dutenak.

Helburua, aldi berean, erkidegoei eguzki-energia erabiltzen irakastea eta argi hauen banaketaren bidez proiektu honen inguruan ekintzaile moduan jarduteko aukerak eskaintzea da; jarduten duen talde horretan gaur egun % 90 emakumeak dira. Horretarako marketina eta enpresa eta merkaturatzeko ekintzailetza irakatsiko zaizkie.

Proiektuari esleitu zaion aurrekontuko zuzkidura 25.000 eurokoa da.

Diruz lagundu nahi den proiektuaren ezaugarriak, onuradunaren berezitasunagatik deialdi publiko batean sartzeko zailtasuna eta proiektuaren izaera humanitarioa kontuan hartuta, Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioari dirulaguntza izenduna ematea proposatzen da, arestian adierazitako zenbatekoagatik.

Son entidades con fuerte raigambre en la sociedad Bizkaína y que pueden poner, también, su imagen pública y su experiencia en la gestión al servicio de este proyecto de puesta en valor de la cooperación al desarrollo.

Una de ellas es la Fundación del Museo Guggenheim Bilbao.

El proyecto del Museo Guggenheim viene de la mano del prestigioso artista Olafur Eliasson que expuso su obra en el museo en el año 2020. Este artista puso en marcha la Fundación "Little Sun" mediante la cual crea unas lámparas solares portátiles de alta calidad y diseño.

Estas luces sirven, por ejemplo, para alumbrar a niños y niñas de manera que puedan estudiar por la noche o alumbrarse en sus recorridos. Existen otros tipo de lámparas que permiten cargar teléfonos móviles o alumbrar en centros hospitalarios en zonas donde se carece de luz eléctrica.

El objetivo consiste, también en formar a las comunidades en el uso de la energía solar y las posibilidades de emprender en torno a este proyecto con la distribución de estas luces, actualmente compuesto en un 90% por mujeres. Para ello se les formará en marketing, en emprendimiento empresarial y comercial.

La dotación presupuestaria asignada a este proyecto es de 25.000 euros.

Dadas las características del proyecto que se propone subvencionar, la dificultad de encuadrarse en una convocatoria pública por la peculiaridad de su beneficiario y su evidente carácter humanitario, se propone la concesión de una subvención nominativa a la Fundación del Museo Guggenheim Bilbao por el importe mencionado anteriormente



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                                      | EGITARAUA / PROGRAMA                                      | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|---------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>06</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>232.115</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>451.00</b>       |

|                           |                                                                                                                             |                           |               |
|---------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b> | <b>2021/0022:</b> Athletic Fundazioa (Bizkaia Kooperera programa)<br><i>Fundacion Athletic (Programa Bizkaia Kooperera)</i> | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b> | <b>25.000</b> |
|---------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|

**TXOSTENA:**

Nazio Batuen Erakundeak "Garapen Iraunkorreko Helburuak" 2030era arte betetzea planteatzen du; elkarrekin konektatutako 17 helburu eta 169 helmuga, ikuspegi integral batekin pentsatuak, herritarrek bakea, oparotasuna eta ongizatea lortzeko eta gure planeta zaintzeko helburuak lortzeko.

Agenda 2030 munduko komunitatearen ahaleginak gidatuko dituen mapa bihurtuko da, eta GJHak politika publikoen funtsezko erreferente bihurtuko ditu, erakunde eta pertsona guztien ekintza itunduarekin, leku guztietan.

Lehen aldiz, GJHek herrialdeen arteko eta herrialdeen barruko desberdintasun iraunkorrak eta gero eta handiagoak jorratzen dituzte. Ez da bakarrik "garapen bidean dagoen mundurako" proposamena, herrialde guztientzat baizik. Lan egin behar dugu horiek tokiko eremuan, nazioartekoan eta atzerrian ditugun ekintzetan ezartzeko.

Horrela, GJHek erakunde eta pertsona guztien ekintza itundua bilatzen dute, gizarte bidezkoagoak, berdintasunezkoagoak eta iraunkoragoak lortzeko: enpresak eta herritarrak, kultura- eta ingurumen-erakundeak, erakundeak eta gobernuz kanpoko erakundeak.

**INFORME:**

La ONU plantea hasta el 2030 el cumplimiento de los "Objetivos de Desarrollo Sostenible", 17 objetivos interconectados y 169 metas, concebidos con un enfoque integral para lograr las aspiraciones de la ciudadanía de paz, prosperidad, bienestar, y de preservar nuestro planeta.

La Agenda 2030 se convierte en un mapa que va a guiar los esfuerzos de la comunidad mundial y convertir a los ODS en un referente esencial de las políticas públicas, con la acción concertada de todas las entidades y personas, en todos los lugares.

Por primera vez los ODS abordan las persistentes y crecientes desigualdades entre los países y dentro de ellos. No se trata solo de una propuesta para el "mundo en desarrollo", sino para todos los países. Debemos trabajar para implantarlos en el ámbito doméstico, en el internacional y en nuestras acciones en el exterior.

Así los ODS buscan la acción concertada de todas las entidades y personas para implicarlas en la consecución de sociedades más justas, igualitarias y sostenibles: empresas y ciudadanía, entidades culturales y medioambientales, instituciones y organizaciones no gubernamentales.



## **Partida izendunak - TXOSTENA**

### **Partidas Nominativas - INFORME**

---

BFAk lankidetza deszentralizatuaren esparruan lan egiten du, eta horren ahalmenetako bat da garapen-prozesuen lurraldearen ikuspegia sustatzeko duen aukera, Bizkaian dauden gaitasunen espezifikotasunetik eta balioespenetik abiatuta.

BFAren IV. Gida Plana da, gaur egun, BFAk bultzatutako jarduera guztien oinarri teorikoa, bai BFAk berak gidatutakoak, bai beste erakunde batzuekin hitzartutakoak, bai diru-laguntzen deialdian oinarrituta finantzatutakoak.

BFAren garapenerako nazioarteko lankidetzaren jarduketa guztien oinarri izan behar diren printzipio gidariek honako hauek izan behar dituzte kontuan: emakumeen ahalduntzea, garapenerako generoaren ikuspegiaren esparruan (GED), eta Giza Eskubide Unibertsalen defentsaren sustapena, bai politikoak eta zibilak, bai ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Garatu nahi dugun Bizkaia Koopera programa ezin da salbuespena izan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren nahia da "Bizkaiko lankidetzaren parte-hartze eta koordinazio guneak indartzea". Horretarako, Bizkaiko lankidetza eraiki eta ikusarazi behar dugu, herritarren sektore guztietan izan dadin. Orain arte Bizkaitik mundura lan egiten duten GGKEek eraiki dute kontakizuna. Lan egingo dugu GJHen ezagutza eta beharra ikusarazteko eta zabaltzeko.

Horretarako, erakunde publikoak zein pribatuak eta lankidetza-eragileak sartu nahi ditugu tartean, eta Bizkaian erreferente diren eta orain arte gai horietan lan egin ez duten erakundeetatik hasita egingo dugu.

Artearen, kulturaren, zientziaren, kirolaren edo gastronomiaren munduko erakunde garrantzitsuekin harremanetan jarri gara proiektu komun bati ekiteko: Bizkaia Koopera. Erakunde horietako bakoitzak Bizkaiko lurraldean dauden gaitasun, baliabide eta esperientzietako bat adierazten du, garapenerako lankidetzaren zerbitzura jar daitezkeenak.

La DFB trabaja en el ámbito de la cooperación descentralizada una de cuyas facultades recae en la posibilidad que tiene para promover un enfoque territorial de los procesos de desarrollo desde la especificidad y de la puesta en valor de las capacidades existentes en Bizkaia.

El IV Plan Director de la DFB es a día de hoy la base teórica del conjunto de actuaciones impulsadas desde la DFB ya sean lideradas por la propia DFB, conveniadas con otras instituciones o financiadas en base a la convocatoria de subvenciones.

Los principios rectores sobre los que se debe asentar cualquier actuación de la cooperación internacional al desarrollo de la DFB debe tener en cuenta: el empoderamiento de las mujeres, en el marco del enfoque de género en el desarrollo (GED) y la promoción de la defensa de los Derechos Humanos Universales, tanto políticos y civiles como económicos, sociales y culturales. El programa Bizkaia Koopera no puede ser una excepción.

Es voluntad de la DFB el "fortalecimiento de los espacios de participación y coordinación de la cooperación de Bizkaia". Para ello, necesitamos construir y visibilizar la cooperación bizkaína para lograr que esta cale en todos los sectores de la ciudadanía. Hasta ahora el relato se ha construido por las ONGD que trabajan desde Bizkaia al mundo. Vamos a trabajar por visibilizar y extender el conocimiento y la necesidad de los ODS.

Para ello, pretendemos involucrar a entidades tanto públicas como privadas como agentes de cooperación y lo haremos empezando por instituciones y entidades que son un referente en Bizkaia y con las que hasta ahora no se había trabajado en estos temas.

Se ha contactado con instituciones relevantes del mundo del arte, la cultura, la ciencia, el deporte o la gastronomía para comenzar un proyecto común: Bizkaia Koopera. Cada una de estas entidades representa alguna de las capacidades, los recursos y la experiencia existentes en el territorio de Bizkaia y que se pueden poner al servicio de la cooperación al desarrollo.



## **Partida izendunak - TXOSTENA**

### **Partidas Nominativas - INFORME**

---

Bizkaiko gizartean errotuta dauden erakundeak dira, eta beren irudi publikoa eta kudeaketa-esperientzia ere jar ditzakete garapenerako lankidetzari balioa emateko proiektu honen zerbitzura.

Erakundeetako bat Athletic Club Fundazioa da.

Proiektu honen tokiko bazkidea Asociación de Deporte y Desarrollo de Villa El Salvador elkartea da. Elkarrekin Villa Salvador departamentuan egiten du lan espazio publikoak lehengoratzeko eta dinamizatzeko eta gatazkak ebazteko bide baketsuak identifikatzeko eta sustatzeko.

Bere helburu horiek lortzeko abiaburua aukeren arloan lantzea da, zailtasunen arloan baino. Futbol herrikoia erabiltzea arazo sozialetan esku hartzeko erreminta moduan, kirol horrek deitzeko eta erakartzeko ahal handia duelako eta gizarteratzeko eta adostasunera iristeko aukerak ematen dituelako.

Helburua departamentuan futbol taldeak antolatzea da, entrenatzaileak prestatzea zelaiaren barruan zein kanpoan begirunearen eta joko garbiaren balioak lan ditzaten. Aldi berean, txapelketak antolatuko dira auzoko taldeen artean elkarbizitzarako eta kirolerako espazio publikoak berreskuratzeko.

Proiektuari esleitu zaion aurrekontuko zuzkidura 25.000 eurokoa da.

Diruz lagundu nahi den proiektuaren ezaugarriak, onuradunaren berezitasunagatik deialdi publiko batean sartzeko duen zailtasuna eta proiektuaren izaera humanitarioa kontuan hartuta, Athletic Club Fundazioari dirulaguntza izendun bat ematea proposatzen da, arestian aipatutako zenbatekoan.

Son entidades con fuerte raigambre en la sociedad Bizkaína y que pueden poner, también, su imagen pública y su experiencia en la gestión al servicio de este proyecto de puesta en valor de la cooperación al desarrollo.

Una de ellas es la Fundación Athletic Club.

El socio local de este proyecto es la Asociación de Deporte y Desarrollo de Villa El Salvador que trabaja en el departamento de Villa Salvador (Peru) para la recuperación y dinamización de los espacios públicos y la identificación y promoción de métodos pacíficos de solución de conflictos.

Para el logro de sus objetivos, se apoya en el principio de trabajar sobre las oportunidades más que sobre las dificultades. Utiliza el fútbol popular como herramienta de intervención a problemáticas sociales por su capacidad de convocatoria y sus posibilidades de socialización y de consenso.

El objetivo consiste en la organización de equipos de fútbol en el departamento, formar a los entrenadores y entrenadoras para trabajar los valores de respeto al juego limpio dentro y fuera del campo. Así mismo se organizarán torneos entre los equipos del barrio para recuperar los espacios públicos para la convivencia y el deporte.

La dotación presupuestaria asignada a este proyecto es de 25.000 euros.

Dadas las características del proyecto que se propone subvencionar, la dificultad de encuadrarse en una convocatoria pública por la peculiaridad de su beneficiario y su evidente carácter humanitario, se propone la concesión de una subvención nominativa a la Fundación Athletic Club por el importe mencionado anteriormente.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                                      | EGITARAUA / PROGRAMA                                      | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|---------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>06</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>232.115</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>451.00</b>       |

|                           |                                                                                                                                                                                             |                           |               |
|---------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b> | <b>2021/0023:</b> Asoc. Koop SF 34 por el Incentivo a Emprendizaje Subsahariano (Bizkaia Koopera)<br><i>Asoc. Koop SF 34 por el Incentivo a Emprendizaje Subsahariano (Bizkaia Koopera)</i> | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b> | <b>25.000</b> |
|---------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|

**TXOSTENA:**

Nazio Batuen Erakundeak "Garapen Iraunkorreko Helburuak" 2030era arte betetzea planteatzen du; elkarrekin konektatutako 17 helburu eta 169 helmuga, ikuspegi integral batekin pentsatuak, herritarrek bakea, oparotasuna eta ongizatea lortzeko eta gure planeta zaintzeko helburuak lortzeko.

Agenda 2030 munduko komunitatearen ahaleginak gidatuko dituen mapa bihurtuko da, eta GJHak politika publikoen funtsezko erreferente bihurtuko ditu, erakunde eta pertsona guztien ekintza itunduarekin, leku guztietan.

Lehen aldiz, GJHek herrialdeen arteko eta herrialdeen barruko desberdintasun iraunkorrak eta gero eta handiagoak jorratzen dituzte. Ez da bakarrik "garapen bidean dagoen mundurako" proposamena, herrialde guztientzat baizik. Lan egin behar dugu horiek tokiko eremuan, nazioartekoan eta atzerrian ditugun ekintzetan ezartzeko.

Horrela, GJHek erakunde eta pertsona guztien ekintza itundua bilatzen dute, gizarte bidezkoagoak, berdintasunezkoagoak eta iraunkorrak lortzeko: enpresak eta herritarrek, kultura- eta ingurumen-erakundeak, erakundeak eta gobernuz kanpoko erakundeak.

**INFORME:**

La ONU plantea hasta el 2030 el cumplimiento de los "Objetivos de Desarrollo Sostenible", 17 objetivos interconectados y 169 metas, concebidos con un enfoque integral para lograr las aspiraciones de la ciudadanía de paz, prosperidad, bienestar, y de preservar nuestro planeta.

La Agenda 2030 se convierte en un mapa que va a guiar los esfuerzos de la comunidad mundial y convertir a los ODS en un referente esencial de las políticas públicas, con la acción concertada de todas las entidades y personas, en todos los lugares.

Por primera vez los ODS abordan las persistentes y crecientes desigualdades entre los países y dentro de ellos. No se trata solo de una propuesta para el "mundo en desarrollo", sino para todos los países. Debemos trabajar para implantarlos en el ámbito doméstico, en el internacional y en nuestras acciones en el exterior.

Así los ODS buscan la acción concertada de todas las entidades y personas para implicarlas en la consecución de sociedades más justas, igualitarias y sostenibles: empresas y ciudadanía, entidades culturales y medioambientales, instituciones y organizaciones no gubernamentales.



## **Partida izendunak - TXOSTENA**

### **Partidas Nominativas - INFORME**

---

BFAk lankidetza deszentralizatuaren esparruan lan egiten du, eta horren ahalmenetako bat da garapen-prozesuen lurraldearen ikuspegia sustatzeko duen aukera, Bizkaian dauden gaitasunen espezifikotasunetik eta balioespenetik abiatuta.

BFAREN IV. Gida Plana da, gaur egun, BFAk bultzatutako jarduera guztien oinarri teorikoa, bai BFAk berak gidatutakoak, bai beste erakunde batzuekin hitzartutakoak, bai diru-laguntzen deialdian oinarrituta finantzatutakoak.

BFAREN garapenerako nazioarteko lankidetzaren jarduketa guztien oinarri izan behar diren printzipio gidariek honako hauek izan behar dituzte kontuan: emakumeen ahalduntzea, garapenerako generoaren ikuspegiaren esparruan (GED), eta Giza Eskubide Unibertsalen defentsaren sustapena, bai politikoak eta zibilak, bai ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Garatu nahi dugun Bizkaia Koopera programa ezin da salbuespena izan.

Bizkaiko Foru Aldundiaren nahia da "Bizkaiko lankidetzaren parte-hartze eta koordinazio guneak indartzea". Horretarako, Bizkaiko lankidetza eraiki eta ikusarazi behar dugu, herritarren sektore guztietan izan dadin. Orain arte Bizkaitik mundura lan egiten duten GGKEek eraiki dute kontakizuna. Lan egingo dugu GJHen ezagutza eta beharra ikusarazteko eta zabaltzeko.

Horretarako, erakunde publikoak zein pribatuak eta lankidetzaren eragileak sartu nahi ditugu tartean, eta Bizkaian erreferente diren eta orain arte gai horietan lan egin ez duten erakundeetatik hasita egingo dugu.

Artearen, kulturaren, zientziaren, kirolaren edo gastronomiaren munduko erakunde garrantzitsuekin harremanetan jarri gara proiektu komun bati ekiteko: Bizkaia Koopera. Erakunde horietako bakoitzak Bizkaiko lurraldean dauden gaitasun, baliabide eta esperientzietako bat adierazten du, garapenerako lankidetzaren zerbitzura jar daitezkeenak.

La DFB trabaja en el ámbito de la cooperación descentralizada una de cuyas facultades recae en la posibilidad que tiene para promover un enfoque territorial de los procesos de desarrollo desde la especificidad y de la puesta en valor de las capacidades existentes en Bizkaia.

El IV Plan Director de la DFB es a día de hoy la base teórica del conjunto de actuaciones impulsadas desde la DFB ya sean lideradas por la propia DFB, conveniadas con otras instituciones o financiadas en base a la convocatoria de subvenciones.

Los principios rectores sobre los que se debe asentar cualquier actuación de la cooperación internacional al desarrollo de la DFB debe tener en cuenta: el empoderamiento de las mujeres, en el marco del enfoque de género en el desarrollo (GED) y la promoción de la defensa de los Derechos Humanos Universales, tanto políticos y civiles como económicos, sociales y culturales. El programa Bizkaia Koopera no puede ser una excepción.

Es voluntad de la DFB el "fortalecimiento de los espacios de participación y coordinación de la cooperación de Bizkaia". Para ello, necesitamos construir y visibilizar la cooperación bizkaína para lograr que esta cale en todos los sectores de la ciudadanía. Hasta ahora el relato se ha construido por las ONGD que trabajan desde Bizkaia al mundo. Vamos a trabajar por visibilizar y extender el conocimiento y la necesidad de los ODS.

Para ello, pretendemos involucrar a entidades tanto públicas como privadas como agentes de cooperación y lo haremos empezando por instituciones y entidades que son un referente en Bizkaia y con las que hasta ahora no se había trabajado en estos temas.

Se ha contactado con instituciones relevantes del mundo del arte, la cultura, la ciencia, el deporte o la gastronomía para comenzar un proyecto común: Bizkaia Koopera. Cada una de estas entidades representa alguna de las capacidades, los recursos y la experiencia existentes en el territorio de Bizkaia y que se pueden poner al servicio de la cooperación al desarrollo.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

---

Bizkaiko gizartean errotuta dauden erakundeak dira, eta beren irudi publikoa eta kudeaketa-esperientzia ere jar ditzakete garapenerako lankidetzari balioa emateko proiektu honen zerbitzura.

Erakunde horietako bat Asociación KOOP SF 34 por el incentivo al emprendizaje Subsahariano elkartea da, aurrerantzean Koop SF34.

Life Container KOOP SF 34 elkarteren proiektu bat da. Oinarria garapen bidean dagoen herrialde baten nekazaritzako edo arrantzako ekoizpenen transformaziorako eta kontserbaziorako edukiontzien bidezko irtenbideak sortzea da.

Proiektu honen bidez Kamerunen edukiontzi bat ezarriko da, kakaoa hartitzea eta merkaturatzea optimizatzeko unitate transformatzaile moduan prestatuta dagoena.

Proiektua Yaoundé erregioaren periferian kokatzen da, batez ere elkarte mailan tokiko azpiegitura eta euskarri handiagoak izateko, kasu honetan Adepoh. Elkarte hau aparteko lana egiten ari da minusbalioak dituzten pertsonen integrazioaren arloan eta beretzat enplegua pertsona horiek gizarte bizitzan integratzeko beste era bat da.

Proiektuari esleitu zaion aurrekontuko zuzkidura 25.000 eurokoa da.

Diruz lagundu nahi den proiektuaren ezaugarriak, onuradunaren berezitasunagatik deialdi publiko batean sartzeko duen zailtasuna eta proiektuaren izaera humanitarioa kontuan hartuta, Asociación KOOP SF 34 por el incentivo al emprendizaje Subsahariano elkarteari dirulaguntza izendun bat ematea proposatzen da, arestian aipatutako zenbatekoan.

Son entidades con fuerte raigambre en la sociedad Bizkaína y que pueden poner, también, su imagen pública y su experiencia en la gestión al servicio de este proyecto de puesta en valor de la cooperación al desarrollo.

Una de ellas es la Asociación KOOP SF 34 por el incentivo al emprendizaje Subsahariano, en adelante KOOP SF34.

Life Container es un proyecto de la asociación KOOP SF 34, basado en la creación de soluciones contenerizadas para la transformación y conservación de la producción agrícola o pesquera de un país en vías de desarrollo.

El proyecto consiste en dar soluciones en un contenedor de implantación en Camerún que se convierte en una unidad transformadora preparada para optimizar la fermentación, el secado del cacao y la comercialización del mismo.

El proyecto se localiza en la periferia de la región de Yaoundé, principalmente por contar con la mayor infraestructura y soporte local en forma de asociaciones en este caso Adepoh. Esta asociación viene realizando un excelente trabajo en la integración de personas con minusvalía y considera el empleo como otra forma de integración de estas personas en la vida social.

La dotación presupuestaria de este proyecto es de 25.000 euros.

Dadas las características del proyecto que se propone subvencionar, la dificultad de encuadrarse en una convocatoria pública por la peculiaridad de su beneficiario y su evidente carácter humanitario, se propone la concesión de una subvención nominativa a la asociación KOOP SF 34 por el incentivo al emprendizaje Subsahariano por el importe mencionado anteriormente.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                                      | EGITARAUA / PROGRAMA                                      | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|---------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>06</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>232.115</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>451.00</b>       |

|                           |                                                                                          |                           |               |
|---------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b> | <b>2022/0021:</b> ZAS Zurrumurruen Aurrakako Sarea<br><i>ZAS (Red Vasca Antirumores)</i> | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b> | <b>30.000</b> |
|---------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|

**TXOSTENA:**

ZAS erakundeak (Zurrumurruen aurkako Euskal Sareak) aniztasunaren edozein eremutan diskriminazioaren aurkako borrokan egiten du lan astiro baina etengabe. Horrenbestez, materialak une oro eguneratu behar ditu.

Argumentu-multzo berri bat sortzeko lan horretan urte asko eman ondoren, ZASek immigrazioari, aniztasunari, xenofobiari eta abarri buruzko gogoetaren arloko testu eta material garrantzitsuak sakondu nahi ditu.

Helburu hori lortzeko, ZAS lanean ari da arrazagatiko, sexu-orientazioagatiko, jatorriagatiko eta generoagatiko edozein diskriminazio ezabatzeko hainbat estrategia sortzen.

Era berean, informazio- eta prestakuntza-sareak sortzen sakontzen du, gizartearen adin-tarte guztietara iritsi ahal izateko, adinaren arabera erabilera espezifiko materialak eta estrategiak sortuz. Halaber, ZASen bokazioa da ahalik eta adin-tarte gehienetara iritsi ahal izatea, eta, bereziki, nerabeekin eta gazteekin bat egitea.

**INFORME:**

En la tarea lenta pero persistente que la entidad ZAS (Red Vasca antirumores) viene llevando a cabo en de la lucha contra la discriminación en cualquier ámbito de la diversidad se requiere de la actualización constante de materiales.

Tras años intensos en esta labor generadora de nuevo arsenal argumentativo, ZAS pone el foco de su trabajo en ahondar en nuevos textos y materiales relevantes del área de la reflexión en inmigración, diversidad, xenofobia, etc.

Para la consecución de este objetivo ZAS trabaja en la dimensión de la creación de diversas estrategias para la eliminación de cualquier tipo de discriminación por razón de raza, orientación sexual, procedencia, y género.

Así mismo profundiza en la creación de redes tanto informativas como formativas a fin de poder llegar a todas las franjas de edad de la sociedad con la creación de materiales y estrategias de uso específico por edades y es vocación de ZAS poder llegar al mayor número de las franjas, y en especial enlazar con la población adolescente y joven.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

---

Bere helburua lortzeko erabilitako materialen eta estrategien gamak funtzio bikoitza du: batetik, zurrumurruen aurkako estrategia ikusarazteko modu berriak ikertzea eta, bestetik, berrikuntza hori gabe ustiatu gabe geratuko litzatekeen argudio-bolumen zabala ezagutaraztea.

Diruz lagundu nahi den proiektuaren ezaugarriak ikusita, eta jardueren xedearen berezitasunagatik eta jardueren espezifikotasunagatik deialdi publiko batean sartzeko duen zailtasuna kontuan hartuta, ez da beharrezkotzat jotzen deialdi publiko batera joatea adierazitako helburua lortzeko.

La gama de materiales y estrategias empleadas para la consecución de su objetivo tiene una doble función: indagar nuevas formas de visibilizar la estrategia antirumor y dar a conocer el extenso volumen de argumentación que sin esta innovación quedaría inexplorado.

Dadas las características del proyecto que se propone subvencionar, y la dificultad de encuadrarse en una convocatoria pública por la peculiaridad del objeto de las actividades y la especificidad de las mismas no se estima necesario acudir a una convocatoria pública para alcanzar la finalidad señalada



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                                      | EGITARAUA / PROGRAMA                                      | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|---------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>06</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>232.115</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>451.00</b>       |

|                           |                                                            |                           |               |
|---------------------------|------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b> | <b>2022/0024:</b> ZINEGOAK elkartea<br>Asociación ZINEGOAK | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b> | <b>30.000</b> |
|---------------------------|------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|

**TXOSTENA:**

Azken urteetan familia-ereduei eta aniztasunari buruzko gizarte-iruditeria sexu-orientazioan eraldatu den arren, lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen kolektiboa (LGTB) kalteberatasun-egoeran dago, haien herritartasun-eskubideak ez daudelako beti eta eremu guztietan bermatuta.

Bizikidetzarako eta gizarte-elkarreraginerako espazio publiko eta pribatu askotan, pertsonen nahiaren orientazioari buruzko aurreiritzizko jarrerak mantentzen dira, eta homosexualitatea zein transexualitatea ikusezin bihurtzen dira oraindik ere, edo gatazkatsu eta nahi gabe hautematen dira.

Gizarte-esparru berri honetan, aniztasuna gizarte kohesionatuak eraikitzeke garrantzitsua dela onartzen da; horretarako, kultura-adierazpenak errespetatzeaz gain gizarte bakarra eraikitzeke helburua bermatu behar da, arau-esparru bakarrarekin. Eskubide-, betebehar- eta aukera-berdintasunari dagokionez, askotariko adierazpenak egotea sustatzen da, guztiek parte har dezaten bizikidetzarako gune bakar bat eraikitzeke helburu komunean. Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez, arraza, sexua, jatorria edo aniztasunaren hainbat alderdi ezin dira izan, inola ere, herritarren eskubideak eskuratzeko eta gozatzeko desberdintasunen

**INFORME:**

A pesar de la transformación de los últimos años del imaginario social sobre los modelos de familia y la diversidad en la orientación sexual, el colectivo de Lesbianas, Gays, Transexuales y Bisexuales (LGTB) permanece en situación de vulnerabilidad por cuanto que sus derechos de ciudadanía no están siempre, ni en todos los ámbitos, garantizados

En gran parte de los espacios, públicos y privados, de convivencia e interacción social se mantienen actitudes prejuiciosas acerca de la orientación del deseo de las personas y tanto la homosexualidad como la transexualidad siguen siendo invisibilizadas o bien se perciben de forma conflictiva y no deseada.

En este nuevo marco social, se asume la importancia de la diversidad para construir sociedades cohesionadas, garantizando que el respeto a las expresiones culturales conviva con el objetivo de construir una única sociedad, con un único marco regulador. Sobre la base de igualdad de derechos, deberes y oportunidades se estimula la existencia de expresiones diversas, para que todas participen del objetivo común de construir un solo espacio de convivencia La Diputación Foral de Bizkaia considera que la raza, el sexo, la procedencia o diversos aspectos de la diversidad no pueden ser, de ninguna manera, motivo para la



## **Partida izendunak - TXOSTENA**

### **Partidas Nominativas - INFORME**

---

arrazoi. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartu du eskubideen berdintasunaren eta identitate arteko bizikidetzaren harmonikoaren alde lan egiteko konpromisoa.

ZINEGOAK jaialdia 2004an sortu zen, zinema-erakustaldi txiki gisa, LGTBIQ+ komunitatearen eta Bilboko eta Euskal Herriko gizartearen artean partekatutako espazio berri bat izateko asmoarekin, eta kalitate handieneko nazioko eta nazioarteko «queer» zinema jendeari hurbiltzeko asmoz. Orotariko zinema-jaialdi garrantzitsuenetan saritutako eta goretsitako lanak, beharrezkoak diren aldarrikapen-mezuak dituzten obra xumeagoak eta, oro har, sexu-, identitate- eta genero-aniztasunaren errealitatea ikusarazteko konpromisoa duen ikus-entzunezko edozein formatu.

Diruz lagundu beharreko jardueren xedea ez dago jasota Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzen deialdi publiko batean ere. Hori dela eta, haien interes publiko eta soziala eta kolektibo hartzaileen berezitasuna kontuan hartuta, ez da beharrezkotzat jotzen deialdi publiko batera joatea aipatutako helburu espezifiko lortzeko.

desigualdad en el acceso y disfrute de los derechos de ciudadanía. Además, la Diputación Foral de Bizkaia ha asumido el compromiso de trabajar por la igualdad de derechos y la convivencia armónica inter-identitaria.

El festival ZINEGOAK nace en 2004 como una pequeña muestra de cine, con la ambición de ser un nuevo espacio compartido entre la comunidad LGTBIQ+ y la sociedad bilbaína y vasca; y con la vocación de acercar al público el cine queer nacional e internacional de la mayor calidad. Obras premiadas y aclamadas en los festivales de cine generalista más importantes, obras más modestas con mensajes reivindicativos necesarios y en general cualquier formato audiovisual comprometido con visibilizar la realidad de la diversidad sexual, de identidad y género.

El objeto de las actividades a subvencionar no se encuentra recogido dentro de ninguna convocatoria pública de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia por lo que, dado su evidente interés público y social y la singularidad de los colectivos destinatarios, no se estima necesario acudir a una convocatoria pública para alcanzar la específica finalidad señalada,



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                                      | EGITARAUA / PROGRAMA                                      | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|---------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>06</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>232.115</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>451.00</b>       |

|                                     |                                                                        |                                     |               |
|-------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|---------------|
| <b>PROIEKTUA</b><br><b>PROYECTO</b> | <b>2022/0057:</b> Pertsonalde elkarte<br><i>Asociación Pertsonalde</i> | <b>ZENBATEKOA</b><br><b>IMPORTE</b> | <b>30.000</b> |
|-------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------|---------------|

**TXOSTENA:**

“GOIHABE programa” gizarteratzeko fasean dauden errefuxiatuekin esku hartzeko estrategia bat garatzean datza. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak gauzatuko du esku-hartze hori, zeina, nahitaez, koordinatua, integrala eta diziiplina anitzekoa izango den, errefuxiatuen gizarteratze-prozesua indartze aldera.

Giza krisi horri erantzun komuna, eraginkorra eta egokia emateko beharra dela eta sortu da “GOIHABE programa”; honako helburu hauek dauzka:

- Bizkaiko Lurralde Historikoan errefuxiatuak gizarteratzeko fasean esku hartzen duten eragileen jarduketara integral eta koordinatua laguntzea.
- Neurriak hartzea sustatzea, errefuxiatuak gizarteratzeko beharrezko zerbitzuek egoki funtzionatu dezaten eta esku-hartzea eraginkorra izan dadin asiloa eskatzen duten pertsona guztiei arreta egiteko –baita nazioarteko babesa eduki arren harrera gizartean erabat txertatzeko laguntza behar dutenei ere–. Horrenbestez, gatazka-eremuetatik datozen pertsonak hartzeaz gain, dagoeneko gure lurraldera iritsi diren asilo-

**INFORME:**

El “Programa GOIHABE” consiste en desarrollar una estrategia de intervención con personas refugiadas en fase de integración social. Dicha actuación se debe llevar a cabo por parte del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad y con la obligación, además, de contar con una actuación coordinada, integral y multidisciplinar para afianzar el proceso de integración de las personas refugiadas.

El “Programa GOIHABE” se enmarca dentro de la necesidad de dar una respuesta común, eficaz y adecuada a esta crisis humanitaria, con los objetivos siguientes:

- Apoyar la actuación integral y coordinada de los agentes que intervienen con personas refugiadas en el Territorio Histórico de Bizkaia, dentro de la fase de integración de las mismas.
- Fomentar la adopción de medidas que permitan la actuación eficiente y el funcionamiento adecuado de los distintos servicios necesarios para la integración de las personas refugiadas, con el fin de atender a todas aquellas que soliciten asilo y también a aquellas que, una vez reconocida la protección internacional, precisen de apoyo para lograr su plena incorporación a la sociedad de acogida. Por tanto, a la acogida de personas



## Partida izendunak - TXOSTENA

### Partidas Nominativas - INFORME

---

eskatzaileen errealitatea kontuan hartuko da, haien eskaera ebatzi arte zain dauden bitartean.

- Getxoko udalerriko asilo-eskatzaileak eta integrazio-fasean dauden errefuxiatuak behar bezala artatzea, datozen egunetan ugaritzea aurreikusten baita.
- Onuradunen autonomia eraikitzea zuzendutako laguntza ematea, bizilekurako laguntza barne.
- Europako Asilo Sistema Bateratuaren eskakizunak egoki betetzea. Ildo horretan, Europako Parlamentuaren eta Asilo, Migrazio eta Gizarteratzeko Funttsak 2014ko apirilaren 16an eraturako kontseiluaren UE 516/2014 Araudiak bereziki jaso zituen gizarteratzeko neurriak. Zehazki, honako hau proposatu zuen: *“nazioarteko babesa jaso duten pertsonak”* gizarteratzea, *“talde-hartzaile horien nolakotasunak kontuan hartzen dituen gizarteratze ikuspuntu global bat bermatu”* ahal izateko. Horretarako, profilak zabaltzea proposatu zuen gizarteratze eta harrera-jarduketak batera eta koordinatuta garatzen direnean. Gizarteratze ekimenak aurrera eramateko neurri zehatzak jaso zituen 9. artikuluan, hala nola gizarteratze beharrak asetzeko ekintzetan laguntzea hirugarren herrialdeetatik etorritako nazionalen – nazioarteko babesa jaso dutenei, birkokatutakoei edo lekualdatutakoei eta, bereziki, zaurgarritasun egoeran daudenei barne-. Ekintza horietako batzuk gizarteratze, aholkularitza eta laguntza estrategietan oinarritzen dira honako hauen inguruan: gizarte zerbitzuak eta arreta psikosoziala, lege- eta administrazio-aholkularitza, eta lan-merkatuan sartzeari errazteko neurriak.

procedentes de zonas en conflicto, se une la realidad de personas que ya están en nuestro territorio como solicitantes de asilo y que permanecen en el mismo a la espera de que se resuelva su solicitud.

- Atender adecuadamente a las personas solicitantes de asilo y a las personas refugiadas en fase de integración, en el municipio de Getxo cuyo número se prevé aumente en las próximas fechas.
- Proveer a las personas beneficiarias de apoyos integrales orientados a construir su autonomía, incluido el apoyo residencial.
- Dar adecuada respuesta a las exigencias del Sistema Europeo Común de Asilo. En este sentido, el Reglamento UE 516/2014, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 16 de abril de 2014, que creó el Fondo de Asilo, Migración e Integración (FAMI), que realiza una mención especial a las medidas de integración, con una propuesta de inclusión de *“las personas beneficiarias de protección internacional”* al objeto de poder *“garantizar un enfoque global de la integración que tenga en cuenta las peculiaridades de estos grupos destinatarios”*, ampliando los perfiles cuando las acciones de integración y acogida estén desarrollándose de forma conjunta y coordinada. Para desarrollar estas iniciativas de integración, su artículo 9 menciona medidas concretas, como el apoyo a las acciones para la atención de las necesidades de integración a nacionales de terceros países, incluyendo a las personas beneficiarias de protección internacional, las reasentadas o trasladadas y, en particular, las personas en situación de vulnerabilidad. Algunas de estas acciones se centran en la implementación de estrategias de integración, asesoramiento y asistencia relacionadas con los servicios sociales y la atención psicosocial, el asesoramiento legal o administrativo, las medidas de facilitación de acceso al mercado laboral.



## Partida izendunak - TXOSTENA

### Partidas Nominativas - INFORME

---

- Hain zuzen ere, diziplina eta balio anitzeko arreta-programa aurreikusi du, zeinak ageriko interes publikoa, soziala eta humanitarioa daukan. Irabazi-asmorik gabeko hainbat erakundek kudeatzen dute, eta xede du gizarteratze-fasean dauden errefuxiatuei ahalik eta berme gehien eskaintzea.

Planteamendu honek "Harrera, gizarte-integrazio eta garapenerako lankidetzarako Pertsonalde Elkartea" erakundearen partaidetza jasotzen du programan, zeregin hori Getxo mailan esku-hartze komunitario batetik gauzatu ahal izateko 25.000 euroko dirulaguntzarekin.

Dirulaguntzaren onuraduna gizarteari zerbitzua emateko jarrera nabarmena duen irabazi asmorik gabeko erakunde bat da. Honako helburu hauek ditu, besteak beste: giza-eskubideen defentsa, pertsona errefuxiatuen integrazioa eta pertsona horien eta nazioarteko mailan babesa behar duten edo bereizkeria arriskuan dauden immigranteen garapen integralaren sustapena, bere jarduketak batez ere helburu humanitarioa ezarrita.

Dirulaguntza hori salbuespenekoa da eta proiektuak zalantzarik gabeko interes publiko, sozial eta humanitarioa duelako ematen da. Horrela, erakunde onuradunak garatuko dituen jarduerak hauek dira, laburbilduta:

- Informazioa eta orientazioa.
- Esku-hartze sozioedukatiboa, psikosoziala eta afektibo emozionala: migrazio-prozesutik eratorritako giza beharrei laguntzea.
- Bitartekaritza, bitartekotza eta sentsibilizazioa.

Orain arte aipatutako guztiak agerian jartzen du laguntzaren interes publiko, sozial eta humanitarioa, baita kolektibo hartzaileen berezitasuna ere; eta, beraz, justifikatu egiten du deialdi publikorik ez egitea planteatutako helburuak lortzeko.

- Se trata, en efecto, de un programa de atención multidisciplinar y polivalente, de evidente interés público, social y humanitario gestionado por varias entidades sin ánimo de lucro que busca ofrecer las mayores garantías posibles a las personas refugiadas en fase de integración

El presente planteamiento incorpora al Programa la participación de la entidad "Asociación Pertsonalde para la acogida, la integración social y la cooperación al desarrollo" a fin de poder llevar a cabo el mismo cometido desde una intervención comunitaria a nivel del Municipio de Getxo con una subvención por importe de 25.000. €.

La entidad beneficiaria de la subvención es una institución sin ánimo de lucro con una marcada orientación al servicio de la sociedad que tiene, entre otros, los siguientes objetivos: la defensa de los Derechos Humanos, la integración de personas refugiadas y la promoción del desarrollo integral de dichas personas y migrantes con necesidad de protección internacional o en riesgo de exclusión, con una finalidad eminentemente humanitaria en su actuación.

Esta subvención es de carácter excepcional y se concede teniendo en cuenta que el proyecto presenta un indudable interés público, social y humanitario. De esta forma, las actividades que la entidad beneficiaria desarrollará se resumen de la forma siguiente:

- Información y orientación
- Intervención socioeducativa, psicosocial y afectivo emocional: acompañamiento a las necesidades humanas derivadas del proceso migratorio.
- Mediación, intermediación y sensibilización.

Todo lo expuesto acredita el interés público, social y humanitario de la ayuda, así como la singularidad de los colectivos destinatarios y justifica la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.



**Partida izendunak - TXOSTENA**  
**Partidas Nominativas - INFORME**

| SAILA / DEPARTAMENTO                                                                                | ATALA / SECCION                                      | EGITARAUA / PROGRAMA                                      | AZPIKON. SUBCONCEP. |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|---------------------|
| <b>09. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna</b><br><i>Empleo, Cohesión Social e Igualdad</i> | <b>06</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>232.115</b> Gizarte Kohesioa<br><i>Cohesión Social</i> | <b>451.00</b>       |

  

|                           |                                                                                           |                           |               |
|---------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|
| <b>PROIEKTUA PROYECTO</b> | <b>2022/0115:</b> Itsas Salbamendu Humanitarioa<br><i>Salvamento Marítimo Humanitario</i> | <b>ZENBATEKOA IMPORTE</b> | <b>50.000</b> |
|---------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------|---------------|

**TXOSTENA:**

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak helburu du Hegoaldeko herrialdeetan garapenerako lankidetzaz bultzatzea. Bizkaiko gizartearen, hezkuntza-estrategien bidez gauzatzeko da lankidetzaz hori; gure mugetatik kanpo, berriz, lankidetzaz deszentralizatuko politiken bidez, nazioartean elkartasuna erakusteko.

BFaren IV. Plan Gidaria BFAk bultzatzen dituen jarduketak guztien oinarri sendoa da, Foru Aldundiak berak zuzentzen dituen jarduketetan, beste erakunde batzuekin hitzartuko diren ekintzetan edo dirulaguntzen deialdian oinarrituta finantzatzeko diren jarduketetan.

BFAk garatzen dituen nazioarteko lankidetzaz jarduketak guztien printzipio zuzentzaileek honako hauek izan behar dituzte kontuan: emakumeen ahalgintza (garapenean genero-ikuspegia txertatuz) eta giza eskubide unibertsalen defentsaren sustapena (eskubide politiko eta zibilak zein ekonomiko, sozial eta kulturalak).

**INFORME:**

